Precinto Digital de Caza

EHIZA-ZIGILU DIGITALAren eskuliburua, erabiltzaileentzat



2026ko bertsioa

Edukien taula

1 Zer da ehiza-zigilu digitala? Zein da haren helburu nagusia?....4

2 Zertan datza ehiza-zigilu digitala?....4

3 Nola instalatu ehiza-zigilu digitalaren aplikazioa?....5

4 Nola erregistratu sisteman?....6

5 Hasi aurretik, aplikazioa errepasatuko dugu....7

6 Nola eskatu ehiza-barruti batean zigilatzeko baimena?....8

7 Nola egin zigilatzeak?....11

8 Nola egiaztatu zigilatzeak?....14

9 Nola zigilatu beste ehiza-barruti batean edo beste autonomia-erkidego batean?....16

10 Zer egin smartphonerik ezean?....17

11 Nork dauka nire datuetarako sarbidea?....19

12 Aplikazioa erabiltzeko aholku batzuk....20

13 Kontaktu interesgarriak....21

1 Zer da ehiza-zigilu digitala? Zein da haren helburu nagusia?

Sistema bat da, ehizakiak elektronikoki erregistratzeko aukera ematen duena, haien datuak modu eraginkorragoan biltzeko eta espezie batzuk (usapal arrunta, adibidez) ehizatzeko eskakizunak betetzeko.

Orain arte, zigilu fisikoa plastikozko marka bat izan da, ehizaki batzuetan (ehiza larriko gehienetan eta ehiza txikiko batzuetan) jartzen duguna. Zigilu digitala “QR” kode bat da, eta bertan gordetzen da ehizaki bati buruzko informazio guztia. Behin sortuta, ezin da suntsitu.

2 Zertan datza ehiza-zigilu digitala?



Ehiza-zigilu digitala honako honetan datza:

- Telefono mugikorreko aplikazio bat, ehiztariek ehizakiak zigilatzeko.
- Kontrol-panel bat, ehiza-barrutien kudeatzaileek ehiztariak kudeatzeko.

Jarraian azalduko dugu nola funtzionatzen duen ehiza-zigilu digitalaren aplikazioak ehiztari erabiltzaileentzat.

3 Nola instalatu ehiza-zigilu digitalaren aplikazioa?

- Hasteko, aplikazioa deskargatu behar da, doan, Androiden edo iOSen (iphone). Horretarako, sartu Play Store edo Apple Store aplikazio-dendara, edo eskaneatu QR hauek:

DISPONIBLE EN Google Play

DISPONIBLE EN App Store

- Aplikazioa deskargatu ondoren, sakatu telefono mugikorrean ikusiko duzun ehiza-zigilu digitalaren ikonoan, eta egiaztatu aplikazioa instalatuta dagoela.




4 Nola erregistratu sisteman?



- Pasahitza ahaztuz gero, “**Pasahitza ahaztu zaizu?**” klikatu, eta mezu elektroniko bat jasoko duzu pasahitza aldatzeko.

- Aplikazioa lehen aldiz erabiltzeko, **“Erregistratu”** botoia sakatu; helbide elektroniko bat eta pasahitz bat ezarri, eta datuak babesteko politika onartu.



Erabiltzaile bakoitza helbide elektroniko bakar batekin identifikatuta dago.

OHARRA: helbide elektronikoa alda daiteke, behar izanez gero; adibidez, enpresako helbide bat erabiltzen denean. Aldaketa hori egiteko, ezinbestekoa da ehiza-barrutiko kudeatzailearekin harremanetan jartzea.



- Sartu datu pertsonalak (izena, abizenak, NANa, telefonoa eta probintzia) **“Erabiltzaile-profila**” atalean, eta gorde datuak.

- Sistemak erabiltzailearen ehiza-barrutiaren (edo ehiza-barrutien) autonomia-erkidegoa detektatuko du, eta autonomia-erkidego horretako sistemara bideratuko du.

Ohiko barrutia dagoen probintzia markatu behar dugu

5 Hasi aurretik, aplikazioa errepasatuko dugu



Aplikazioak bost atal ditu:


- **Profila:** “Erabiltzaile-profila” fitxa agertzen da.
- **Ehiza-barrutiak:** “Ehiza-barrutien kudeaketa” egiteko.
- **Zigilatzea:** zigiluak sortzeko.
- **Historikoa:** egindako zigiluak kontsultatzeko eta ehizakiak kudeatzeko.
- **Aukerak:** kontua eta aplikazioaren itxura kudeatzeko eta zerbitzu teknikoarekin harremanetan jartzeko.

6 Nola eskatu ehiza-barruti batean zigilatzeko baimena?



Ezin da ehiza-barruti batean zuzenean zigilatzen hasi, ehiza-barrutiaren kudeatzaileak aldez aurretik horretarako baimena eman ez badigu.

- “**Ehiza-barrutiak**” atalean, sakatu “**Sarbide-eskaera**”, probintzia eta barrutia bilatzeko.





- Aplikazioak abisu bat bidaltzen du eskaera behar bezala egin dela baiesteko, eta hura onartu arte ezin dela zigilatu oroitarazteko.

  Ehiza-barrutiaren kudeatzaileak onartu edo baztertu eginen du eskaera.





- "**Eskatutako ehiza-barrutiak**" atalean eskaeraren egoera ikus daiteke, eta "**Onartutako ehiza-barrutiak**" atalean, berriz, baimendu diren eskaerak (hau da, zigilatzeko baimena dutenak).



  Ehiza-barruti batera sartzeko eskaerak banaka ezezta daitezke, eskaera bakoitzaren eskuineko "X" botoia sakatuz, edo egindako eskaera guztiak ezeztatu daitezke, beheko "Eskaera guztiak ezeztatu" botoia sakatuz.




- Lehen aldiz sartzean, "**Oraingo ehiza-barrutia**" atala hutsik agertuko da, ez baita barrutira sartzeko eskaerarik onartu.

  Behin onartuta, automatikoki ager daitezke pantailan, edo "**Zerrenda eguneratu**" botoia sakatuta.

  Zerrenda eguneratu ondoren beste ehiza-barruti batzuk agertzen badira onartuen artean, mezu hau agertuko da.





- Ehiza-barrutiaren kudeatzaileak eskaerak onartu ondoren, sarbide baimendua duten ehiza-barruti guztiak bistaratuko dira, zigilatzeko aukeratu nahi dena hautatu ahal izateko.

OHARRA: Ehiza-barruti bakarra esleituta duten erabiltzaileek ez dute ehiza-barrutirik hautatu behar zigilatzeko; izan ere, automatikoki hautatzen da ehiza-barruti hori.

7 Nola egin zigilatzeak?

Aplikazioarekin egindako erregistro guztiak hartzen dira zigilutzat.


Lehenengoa

Hautatu zein barrutitan zigilatuko duzun, “**Egungo barrutiak**” atalaren barruan, eta berretsi (orain markatuta agertuko da).



Bigarrena

- Aukeratu "**Zigilatu**” atala, informazio honekin:



Hirugarrena

Espeziea: menu zabalgarrian klik egin, espeziea hautatzeko. Espezie bakoitzeko zigilatze bat egin behar da, ezin da espezie bat baino gehiago sartu zigilu berean.



Behar ez zen ehiza-barrutia aukeratu badugu, inolako arazorik gabe alda dezakegu ehiza-barrutia “**Ehiza-barrutiak**” fitxan, eta zigilatzeko sartutako datuak ez dira galtzen.

Laugarrena

Kupoa: Administrazioak edo ehiza-barrutiak kupo bat ezarri badio espezieari, kupoari dagokion zenbakia agertuko da. Ehiza-barrutiak edo ehiztariak ez badu kuporik espezie horretan, “Kuporik gabe” agertuko da, eta ezin izanen da zigilatu.





Bosgarrena

Ehizakiak: guztizkoa marka daiteke, “+” eta ”-” sakagailuen bidez, edo zenbakiaren gainean sakatuz (zenbakizko teklatua agertuko da). “0” ehizaki zigilatzeko aukera dago, ehizaldiari buruzko informazio gehiago eman nahi bada.



Seigarrena

Hasiera- eta amaiera-ordua: automatikoki markatzen da zigilatzea hasten denean. Nahi badugu –eta oso interesgarria da hala egitea–, gure ehizaldiaren hasiera- eta amaiera-ordua marka ditzakegu. Zigiluak ehizatze-ordua ere gordeko du. Erlojuen ikonoak sakatzean, ordua eskuz doitu daiteke.





Kupoa duten espezieen kasuan (adibidez, usapala), ehizaki bakarra zigila daiteke zigilu bakoitzeko.



Estaldurarik ez dagoenean, sisteman erregistratuta geratuko da zigilua, eta estaldura dagoenean kenduko da kupotik. Ehiza-barrutiaren kupoa poltsa komun bat bada –eta ez banakakoa ehiztari bakoitzarentzat–, kontuz ibili behar da estaldurarik gabeko zigiluekin, kupoa ez gainditzeko.

Zazpigarrena

GPSa: Aplikazioak GPS baimena eskatuko du zigilu bat sortzen den lehen aldian (zigiluaren koordenatu geografikoak erregistratzen dira beti). Gomendagarria da baimen hau aukeratzea: aplikazioa erabiltzen den bitartean.

Zortzigarrena

Zigiluak: Zigilatzean, ohar bat agertzen da datuak berresteko. Zigilua behar bezala bidali denean, “Bidalketa zuzena” agertuko da. Berritasun gisa, orain zure ehizakien argazki bat edo batzuk gehitu daitezke “**Gehitu irudia**” ataletan.









Estaldurarik ez badago, zigilua mugikorrean gordeko da, eta geroago, estaldura dagoenean, zerbitzarira bidaliko da. Ohar garrantzitsua: ez itxi aplikazioa estaldura duen eremu batera iritsi arte.




Akatsen bat edo okerren bat egonez gero, zigilua ezaba daiteke lehen 15 minutuetan, baina ezinezkoa da epe hori amaitzen denean.

8 Nola egiaztatu zigiluak?









"**Historikoa**" atalean, egindako zigilu guztiak egiazta daitezke, eta oinarrizko datuak agertzen dira (eguna, ehiza-barrutia, espeziea, ehizaki-kopurua eta zigiluaren egoera). Berritasun gisa, sortutako zigiluen kokapena kontsulta daiteke mapan.

Zigilu baten gainean sakatzean, QR kodea agertzen da, agintaritza-agenteek edo beste pertsona batek kontsulta dezaketena, "**Aukerak**" fitxarekin batera.

"**Aukerak**" atalean, ehizakiak transferitzeko eta zigilua ezabatzeko funtzioak daude.

- **Zigilua ezabatu**: zigilatzean akatsen bat izanez gero, azken 15 minutuetan egindako zigiluak ezaba daitezke.


- **Ehizakiak transferitu**: ehizaldia amaitu ondoren, ehizakiak transferitu daitezke sisteman erregistratutako erabiltzaileen artean edo erregistratu gabeko pertsonei.



Erregistratu gabeko pertsonei zigiluak transferitzeko, argazki edo pantaila-argazki bat aterako zaio zigiluari, eta posta elektronikoz edo WhatsApp-ez bidaliko zaio erregistratu gabeko pertsonari.


Zigiluaren ehizaki guztiak transferitzen dira; horrela, beste ehiztari batzuei pieza batzuk emateko, behar adina zigilu sortu behar dira.

Hori ez da aplikatzen kupoa duten espezieentzat (usapala, adibidez), horietan ehizaki bakarra zigilatu baitaiteke zigilu bakoitzean.





Zigilua transferitzea aplikazioan erregistratutako erabiltzaile bati





Zigilua transferitzea aplikazioan erregistratu gabeko pertsona bati





"Historikoa" fitxan, erregistratutako zigilu propioak, jasotakoak eta transferituak daude eskuragarri. Zigilu bakoitzak egoera adierazten du: erregistratua, bidalia, jasoa edo erregistratzeko zain (konexiorik gabe sortutako zigiluetarako).

OHARRA: transferitutako ehizakien zigiluak ez daude jada eskuragarri erabiltzailearentzat

9 Nola zigilatu beste ehiza-barruti batean edo beste autonomia-erkidego batean?

Ehiztariaren datuak ehiza-barruti nagusiaren jatorrizko probintziari lotuta geratzen dira, eta ehiza-zigilu digitalari atxikita dagoen autonomia-erkidegokoen sarbidea eskatzeko aukera dago.

Aplikazioa hastean, lotutako autonomia-erkidegoaren logoa ikus daiteke.

Beste autonomia-erkidego batean ehizaldi puntual bat egiteko, dagokion ehiza-barrutirako sarbidea eskatu behar da. Titularrak edo kudeatzaileak eskaera onartzen duenean, erabiltzaileak baimena izanen du ohikoa ez den ehiza-barruti batean ehizaldi batean parte hartzeko, eta biak “**Egungo barrutia**” fitxan geratuko dira eskuragarri.

10 Zer gertatzen da ehiztari batek Smartphonerik ez badu?

Smartphonerik ez duten ehiztariek beste pertsona bat beharko dute haien izenean zigilatzeak egiteko.

- Beharrezkoa da, aldez aurretik, ehiza-barrutiaren kudeatzaileak alta egina izatea dagokion ehiztariari, helbide elektronikorik izan ez arren.
- Kudeatzaileak aukera izanen du ehizaldi-arduradun izendatutako pertsonak bere ardurapeko beste ehiztari batzuen izenean zigilatzeko.
- Ehizaldi-arduradunari, “**Zigilatu**” menuan, leiho bat agertuko zaio “Zigilatzailea” testuarekin, eta menu zabalgarri bat izanen du zigilua erabiltzaile bati esleitzeko.






OHARRA: ehiztari horrek bere zigiluak egin nahi dituenean, fitxa horretan bere izena hautatu beharko du.



- Zigilatzeko erabiltzailea aukeratu ondoren, gainerako prozesua zigilu propio bat sortzeko berbera da.





- Ehizaldiaz arduratzen diren eta beste erabiltzaile batzuen izenean zigiluak sortu dituzten erabiltzaileek bi atal ikusiko dituzte “**Historikoa**” menuan: Bat (“**Nire zigiluak**”) zigilu propioak ikusteko, eta bestea (“**Arduraduna**”) arduradun gisa sortutako zigiluak kontsultatzeko.

OHARRA: ehizaldi-arduradunek sortutako zigiluetan, zigilu hori sortzeaz arduratu den erabiltzailea agertzen da, gainerako datuekin batera.



Bere kabuz zigilatu ezin duen ehiztariak gutxienez telefono kameradun bat edo kamera digital bat izan beharko du, haren izenean zigilatu duen ehiztariaren zigiluari argazkia atera ahal izateko. Hala, ehizakiak lekualdatzean, agintaritza eskudunaren aurrean frogatzen ahalko du behar bezala zigilatu dela.


11 Nork dauka nire datuetarako sarbidea?




- QR kodeen irakurgailu bat duen edonork egiazta ditzake zigiluak; besteak beste, agintaritza-agenteek: baso- eta ingurumen-agenteek, foruzainek, SEPRONAko agenteek, etab.
- Barrutiaren kudeatzaileak bakarrik jakin dezake ehizakiak nork atzeman dituen (izen-abizenekin). Beraz, ehiza-barrutietako ehizakien datuak batu eginen dira, ondoren aztertzeko, eta ehizatzeen datuak anonimizatuta gordeko dira.
- Zure datuen tratamendua datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak eta hura garatzeko legeriak aitortzen dizkizuten eskubideen mende dago:
  - Arduraduna: Arloan eskumena duen administrazioa (autonomia-erkidegokoa)
  - Helburua: Zigilu digitalaren zerbitzua kudeatzea (titularren eta baimenduen erregistroa)
  - Legitimazioa: Adostasuna edo, hala badagokio, legezko betebeharra.
  - Hartzaileak: Ez dago hartzailerik, legezko betebeharra salbu.
  - Eskubideak: Zure datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta eramatea, datuen tratamendua mugatzea eta hari aurka egitea, bai eta datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakien xede ez izatea ere, hala dagokionean.

Informazio osagarria: Informazio gehiago: pribatutasun-politikan, aplikazioan alta emateko unean.

12 Aplikazioa erabiltzeko aholku batzuk





- Gomendagarria da aplikazioarekin trebatzea hura erabiltzen hasi aurretik. Probazko zigiluak egin daitezke, zigiluak ezabatzeko funtzioaren bidez (sortu eta 15 minutu igaro aurretik).

- Aplikazioa Interneterako konexiorik gabe **zigilatzeko prestatuta dago**, baina gomendatzen da aplikazioa ez ixtea, hobeki funtziona dezan, eta datu-estaldura duten eremuetan erabiltzea. Nolanahi ere, aplikazioak adierazten du noiz ari den lanean Interneterako konexiorik gabe; halakoetan, zigilatzeko orduan, “behin-behineko” zigilu bat gordetzen du gailuan, lokalean, konexioa berreskuratu ondoren zerbitzarira behin betiko bidaltzeko.

- Posible da ehizaldi bat gordetzea baina ehizakirik markatu gabe, ehizatu ez delako edo behar nuen guztia zigilatzeagatik ehizaldiaren iraupena soilik markatu nahi dudalako. Horretarako, ehizakirik gabeko zigilu bat sortuko da. Usapala ehizatzera joanez gero, espeziea aukeratuko da, “0 ehizaki” markatuko da, eta ehizaldiaren hasiera- eta amaiera-ordua zehaztuko dira.



Oso garrantzitsua da ehizaldiaren iraupena erregistratzea, esfortzua analizatzeko

13 Kontaktu interesgarriak

Erabiltzaileentzako arreta

Aplikazioaren funtzionamenduari buruzko kontsultak egiteko, ehiztari erabiltzaileek haien ehiza-barrutiaren kudeatzailearekin jarri beharko dute harremanetan.



Aplikazioaren "Aukerak" ataletik, zuzenean jar daitezke harremanetan laguntza teknikoarekin.

Adibidez:

- Ezin naiz aplikazioan erregistratu
- Ez dut nire ehiza-barrutia aurkitzen
- Akatsak zigilatzean, geolokalizazioan eta ehizakien transferentzian.

Aplikazioak sorturiko zalantza informatikoak eta arazo teknikoak argitzeko, ehiztariak honako hauekin jar daitezke harremanetan:

soporte@precintodigital.com

+34 641 66 49 45


pdc
Precinto Digital de Caza